

## **ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA**

Areson, 2017ko urriaren 19an, 18:00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivitek Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

**Organua :** Batzarra

**Deialdia:** lehenengoa

**Eguna:** 2017/10/19

**Ordua:** 18.15

**Lekua:** Udalaren Batzar Aretoa

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

M<sup>a</sup> Asunción Arratibel Onsalo

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

Eden Alguero Chivite

Ur Alguero Chivite

Javi Belaunzaran Mariezcurrena

Mikel Baraibar Garmendia

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

Jon Gurrutxaga Etxeberria

### **IDAZKARIA**

Amaia Elkano Garralda

### **GAI ORDENA:**

1. Aurreko aktaren onespena.
2. Hirigintza Planaren esleipena.
3. Mozioak: Foruzaingo Plan Zuzentzailea.
4. Alkate ebazpenak
5. Eskaera eta galderak.



6. Denetarik

**Esan-eginak eta erabakiak**

Alkateak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, 18.15ak direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutakoen quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

**1. Aurreko batzarreko aktaren onespena.**

Aurreko batzarreko aktaren laburpena egiten du alkateak, eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

**1.1.- 2017ko abuztuaren 1eko ohiko batzarreko akta onartzea.**

**2. Hirigintza Planaren esleipena.**

Alkate jaunak azaltzen duenez, 2017ko urriaren 17an, Aresoko Hirigintza Planaren erredakzioaren esleipen prozedurarako osatutako Kontratazio Mahaia bildu zen eta prozeduran aurkeztutako bulegoen eskaintza ekonomikoen gutun-azalak ireki ziren. Bertan azaldutako eskaintzen puntuazioa kalkulatu eta horri, Kontratazio Mahaiak aurretik egindako balorazioa teknikoaren puntuazioa batuta, esleipena PRADA ARQUITECTURA S.L. enpresaren alde egiteko proposamena luzatu dio Kontratazio Mahaiak Aresoko Batzar Orokorriari.

Idazkariak ziurtatu duenez, "Hirigintza Plana" partidan 70.000€tako kreditu erreserba egina dago esleipen honetarako eta PRADA ARQUITECTURA S.L. enpresaren eskaintza ekonomikoa 40.495,87€tako dela ikusita, egoki jo du enpresa honen aldeko esleipena.

**Gaia aztertuta, Aresoko Batzar Orokorrak aho batez Aresoko Hirigintza Planaren erredakziorako asistentzi kontratua, PRADA ARQUITECTURA S.L., B-01.479039 enpresaren alde egitea ERABAKI DU, 49.000 euroko ordainsariarekin (BEZa barne).**



### 3. Mozioak:

#### a. Foruzaingo Plan Zuzentzaileari buruzko mozioa

Alkateak Batzar Orokorrean Foruzaingo Plan Zuzentzaileari buruzko mozioa ozenki irakurtzen du eta zinegotzi guztiek aho batez alde bozkatuta, honakoa ERABAKITZEN du Udalbatzak:

***“Lehena.**-Nafarroako Foruzaingoa gure komunitateko erreferentziako poliziatzat hartzea, segurtasun publikoko eskumenak eraginkortasunez eta efizientziaz betetzeko gai den polizia integrala izanik.*

***Bigarrena.**-Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari eskatzea izapidetzen ari den Foruzaingoaren Plan Zuzentzailean Hirugarren eszenatokiaren alde egitea aurreikusitakoen artetik; hain zuzen ere, Esklusibotasuneko Polizia Ereduaren alde, Estatuak eskualda ditzakeen Trafiko eta Bide-segurtasuneko, Herritarren Segurtasuneko eta Ingurumeneko eskumen guztiak hartu eta baliatzeko. Eta Estatuarekin egin beharreko negoziazioa egingo da, beharrezkoak diren foruzainen plantilla garatzeko, betiere garapen eta zabalkuntza hori gertatzearekin batera Estatuako segurtasun-indarrek, aldi berean, eginkizun eta eskumen horiek berak betetzeari utzita.<sup>3</sup>*

***Hirugarrena.**-Esklusibotasuneko Polizia Eredua izango da Nafarroako Gobernuak epe ertainean bete beharreko helburua, arian-arian eta aurrekontuko baliabideen arabera. Nolanahi ere, esklusibotasuneko eredu horren kostua Ekonomia Itunaren negoziazioan aztertu beharko da, Estatuak onartu behar baitu eta txertatu behar baitu kostu hori Nafarroak bere gain hartzen duen kargatzat, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Ekonomia Itunaren ondoriozko ekarpena kalkulatzeko garaian.*

***Laugarrena.**-Guk defendatzen dugun polizia-ereduan, Nafarroako Foruzaingoak honelakoa izan beharko luke:*

***-Polizia demokratikoa, egiten dituen** jardun, kudeaketa-lan eta emaitzen berri Gobernuari ez ezik -polizia zuzentzen duen aldetik-, herritarrei ere emanaz -herritarren zerbitzura dagoen aldetik-.*

***-Giza eskubide guztiak errespetatuko dituen polizia,** funtzionamendua arautuko duen Lege eta guzti, eta Poliziaren Jokabideari eta Etikari buruzko Deontologia Kodea ere baduena, honako hauetan oinarrituta: Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Poliziarentzako Giza Eskubideei buruzko Araudi eta Jardunbidean, eta Europako Kontseiluak gomendatutako Poliziaren Etikaren Europako Kodean.*

***-Gertuko polizia** herritarrentzat, bi inguruneen ezagutza sakonean oinarrituta jarduten duena, gaitasun analitiko handiaren bitartez.*





-**Elkarreragiten duen polizia**, bai herritarrekin, bai elkarteekin, bai erakunde publiko nahiz pribatuekin, eta bai herritarren ongizateaz eta segurtasunaz arduratzen diren beste erakunde batzuekin, Segurtasun Publikoari buruzko Foru Legearen esparruan plan taktiko eta estrategikoak eginda.

-Berezko eta **Gobernuaren** barne-kontrolako mekanismoei ez ezik, Poliziari buruzko Foru Legean aurreikusi beharreko **Kanpo Batzorde Independenteari** ere atxikita **jardun behar duen polizia**.

-Prestakuntza teknikoa, humanistikoa, polizia-eginkizunak betetzeko profesionaltasuna eta kide guztien garapen pertsonala eta profesionala baldintza eta aukera berdinetan **etengabe eta modu iraunkorrean sustatuko dituen polizia**.

-Nafarroan ofizialak diren bi hizkuntzetan jarduteko gai den polizia.

**Bosgarrena.**-*Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura eta Nafarroako Parlamentura helaraziko da*".

b. **Kataluniako prozesuaren kontrako errepresioaren aurkako eta erabakitze eskubidearen aldeko mozioa:**

Alkateak Batzar Orokorrean mozio hau ozenki irakurtzen du eta zinegotzi guztiek aho batez honakoa onartzen dute:

*"Aresoko Udalak bere kezka eta erabateko arbuioa adierazten du Auzitegi Nazionalak Jordi Cuixart Omnium Culturaleko presidentea eta Jordi Sanchez Biltzar Nazional Katalaneko presidentea baldintzarik gabe espetxeratzeko eman duen agindua dela eta, erabaki horrek oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.*

*Aresoko Udalak Cuixart eta Sanchez arrazoi politikoengatik atxilotu eta kartzelaratu izana salatzen du.*

*Aresoko Udalak bere babesa eta elkartasuna adierazten die Cuixart eta Sanchezi, bai eta Kataluniako gizarte osoari ere, eta biak berehala askatzeko exijitzen du.*

*Aresoko Udalak Estatu espainolari eskatzen dio oinarrizko askatasunen aurkako estrategia errepresiboa bertan behera utz dezala demokraziaren funtsezko printzipioen kontrakoa izateagatik.*

*Aresoko Udalak berresten du Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko gainerako herriek bezalaxe, bere etorkizun politikoa erabakitzeke zilegitasun demokratikoa*

*duela, muga herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutena izan behar delarik”.*

c. **Aurrekontu egonkortasunari buruzko legearen indagabetzeko mozioa**

Alkateak Batzar Orokorrean mozio hau ozenki irakurtzen du eta zinegotzi guztiek aho batez honakoa onartzen dute:

- 1.- Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren edukia errefusatzea.*
- 2.- Espainiako Gobernua premiatzea aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legea ahal denik eta azkarren indargabetzeko hartu beharreko neurriak urgentziaz har ditzan.*
- 3.- Herritarroi eduki honen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.*
- 4.- Akordio honen berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari.*

**4. 2017/75- 2017/95 Alkate ebazpenen berrespena.**

Banan bana alkate ebazpenak irakurriak dira.


**4.1.- 2017/75- 2017/95 Alkate Ebazpenak berretsiak dira.**

**5. Eskaera eta galderak.**

Ez dago.

**6. Denetarik.**

Aztertu beharrekoa aztertuta, 19.10 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.







*[Faint, illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page]*